



Astekaria

BARREN

elgoi



kutxa fundazioa

gipuzkoa donostia kutxaren gizarte-ekintza

3 LAU HANKATAN

"Maalako iturri berri horretaz dihardut... halako desiturri bat eraikitzea burugabekeria da" **Hasier Etxeberria**.

6 ERREPORTAIA: MENDAROKO OSPITALA OSASUNA GERTUAGO.

"Laster jarriko da martxan eguneko kirurgia deritzona".

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ERRETZAILE ETA EZ ERRETZAILEEN ESKUBIDEAK

Jose Inazio Izagirre

"Gizarte honetan erretzaile ez garenok ere bizi gera.... eta ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin".

Isabel Rivas

"Berdinak dira erretzaile eta ez erretzaileen eskubideak. Baina batzuek erre egiten dugu eta besteek ez; hor zegon, bada, koxka!".

12 BERBETAN

"Pastelak maitasunarekin egin behar dira".

Jose Etxeberria.

14 KIROLA:

GAIA: URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA.

ELKARRIZKETA:

Alberto Revuelta: MUGERZA MEMORIALEAN PODIUMERA IGO DEN LEHEN ELGOIBARTARRA.

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

EGOTOKI: 30 URTE KROSA ANTOLATZEN

17 KULTURA

HERRIKO ANTZOKIA BERRITZE LANETAN

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

| | |
|--|--------|
| Anbulategia: Larrialdiak | 741155 |
| Txanda hartzeko..... | 743354 |
| Alkoholiko Anonimoak | 742950 |
| D.Y.A (anbulantzia)..... | 464622 |
| Gurutze Gorria | 743864 |
| Mendaroko Ospitala..... | 756264 |
| Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa) | 743936 |
| Odol Emaileen elkarte..... | 741190 |

GARRAIOAK

| | |
|------------------------|--------|
| Eusko Trenbideak | 740442 |
| PESA (Eibar) | 112131 |
| Taxi Geltokia | 740898 |

UDALA

| | |
|----------------------------------|--------|
| Euskara Zerbitzua | 744366 |
| Kultura eta Kirol Zerbitzua..... | 742158 |
| Ongizate zerbitzua | 743736 |
| Udaletxea | 741050 |
| Udaltzaingoa | 741394 |

BESTELAKOAK

| | |
|------------------------------|--------|
| Caritas | 740142 |
| IMI | 741196 |
| Kontsumo Bulegoa (OMIC)..... | 743088 |
| Liburutegia..... | 743525 |
| Musika Eskola..... | 742145 |
| Polikiroldegia..... | 741361 |
| Postetxea | 741547 |

HIRUGARREN ADINA

| | |
|--------------------------|--------|
| San Lazaro Egoitza | 740296 |
| Zaharren Biltokia | 740526 |

KOMIKIA



©KOKOE 1993

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirrezaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Kolaboratzaileak
Miriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Jon Eugi, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Aitor Lodoso, German Meabebazterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Andoni Rementeria, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
I..025 SS-92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Desiturrixa

Begi eder batzuk izaten dira, gehienetan, edertasunaren irudi, zeinu eta sinbolo.

Osterantzean, naturan edo artean bilatu beharko da parekoren bat edertasuna adierazteko orduan: desertu amaiezina, itsaso barea, arbola bat, mitxilikota bat, koadro bat, sinfonia bat, liburu bat... Beste zenbaitetan, gizakiaren barrura begiratu beharko da edertasuna zer den jakiteko, sentipenen mundutik aterako ditugu gauza ederrenak: maitasuna, adiskidantza... Hala ere, edertasunaren sinbologian, bada bat behin eta berriz, ia kultura gehienetan, agertzen dena: iturria.

Herri arabiarretan zientzia izatera ere heldu zen iturrien antolakuntza. Txinan edo Japonen ia erlijio bihurtzen zen iturri baten eraiketa. Iturrien inguruan antolatu izan dira palazioak, lorategiak... herri osoak. Izan ere, iturria edertasunaren sinboloa da. Garbitasun eta gardentasunarena. Egunoro berritzen denarena. Osasuna eta pozarena. Egiarena.

Gure artean, zorionez, ez da urik falta izaten eta agian horrexegatik, iturrigintzan ez gara hain artistak. Baina nork ez dauka bere haur garaiko sentipenetan iturriren baten akordua? Iturriak jolasa eta magia ere badira. Zeinek ez du sekula alkandoraren mahukaririk iturriren batean busti? Nork ez ur garbiren batean egarririk asetu?

Zeinek ez du iturriren batean paperezko ontzirik itsasoratu?

Orain, ordea, elgoibartarroi eta gure ondorengoei, ukatu egiten zaigu iturritasuna. Malako iturri berri horretaz dihardut, Gaztetxea zeneko horretan dagoenaz. Gaztetxearen auziak azterketa sakonagorik merezi duen arren, ez gara orain horretan hasiko, baina hura bota eta halako desiturri bat eraikitzea burugabekeria da. Egundoko burugebakeria.

Urik ez da ikusten ia. Jolasteko arriskutsua da. Edertasunarekin ez dauka zerikusirik. Ez du hurbiltzera gonbidatzen. Ezin da bertan edan, ezin da urik jaso, ezin da ikutu, entzun ere ez da egiten. Materiale eskas eta zatarrez egindakoa da. Atatatu estetiko da, naturarekin inolako loturarik ez daukana. Txoriei ez zaie sekula burutik pasatuko halako leku zoritxarrekoan ura edaterik... Bi hitzetan esanda, traba antiestetikoa da.

Seguru nago, halako proiektua burutu duten gizonak (gizonezkoak izan behar derrigor), harro daudela egindako lanaz. Diru piloa gastatuko zuten, gainera. Ziur naiz aproposagoak direla exkabadorak sartu eta han zegoen etxea botatzeko, herriko haurrek eta artistek diseinatu beharko luketen leku eder bat jasotzeko baino. Baina, tira, horiek politikaren ajeak dira eta tarte honek ez luke izan nahi halako txorakerietarako.

SOLOZABAL AUTO ESKOLA

GARRAIOLARIEN IKASTAROA

MERKANTZIA, BIDAIARI, NAZIONAL, NAZIOARTEKO
ETA AGENTZIA TITULUAK

GIDA BAIMEN GUZTIAK

Toribio Etxeberria 5, Eibar. TEL: 70 23 84

AZPELETA

• **elektrizitatea**

San Frantzisko 51. Tel: 74 12 38

Zinea gauean, noizko?

Elgoibarko gazte kuadrila bat gara, eta zinematokiaren egoera lotsagarria dela uste dugu. Arazorik larriena insonorizazio falta da. Hau dela eta ez dago ez gaueko emanaldirik ez eta bestelako saiorik ikusteko aukerarik, besteak beste, antzerkiak, musikaldiak e.a..

Zinematoki egoki bat edukitzea, elgoibartar guztion eskubidea dela deritzogu.

Gure ustez arazoa ez da diru falta, administrazio makal baten ondorioa baizik.

Erantzun bat lehenbailehen ikustea gustatuko litzaiguke.

Elgoibarko kuadrila bat



Eskutitzak, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan beharko dute. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inizialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.

Telefonikaren sustoa

Telefonikaren azken erreziiboak merkatari asko erabat harritu gintuen, bataz beste bederatzita mila pezeta gehiago ordainarazi zigutela ikusiz.

Hau zela eta, telefonikara deitu genuen, eta haien erantzun bakarra honakoa izan zen: listin berrietan, publizitatea autonomia osora begira egiten da, ez probintzi mailan bakarrik.

Lehen 16.000 pezeta inguruko ordainketa zena, era honetara, 34.000 pezetatara dator

urtekoa. Eta galdetu izan baligute, tira! Baina gurekin, bezero garenokin, inolako kontsultarik egin gabe hartu dute neurria. Harrapa ezak!

Merkatariok bestela ere diru asko gastatzen dugu telefonoan. Beraiei dagokien "INFORMAZIOA" ere guk ordaindu behar al dugu?

ZALDITIK ASTORRA GOAZELA DIRUDI.

Txankakua

Harpidetza Kanpaina Elgoibarren



AUKERA APARTA

Elgoibarren harpidetza kanpaina aurrera eramaten ari garela eta, aukera paregabea eskeintzen dizue **EUSKALDUNON Egunkariak** elgoibartar guztiei.

Horrela, **otsailaren 1-12 bitartean** deitzen diguzuen guztiok, 15 egunetan zehar Egunkaria etxean dohainik jasoko duzue, eta lehenengo 10 deiek hilabete oso batez izango dute aukera berbera.

Dei ezazue denborarik galdu gabe **74 43 98** telefonora arratsaldeko 6etatik 8etara edo pasa zaitetze Egunkariak Elgoibarren ireki berri duen bulegotik ordutegi berberean.

San Frantzisko 41ean zuen zai gaituzue, Zatozte!!

Hona hemen Merce Garziak utzitako argazkia. 1963an Santa Klarako monjen konbentuan ateratakoa.

Denak neskak izan arren inortxori ere ez zaio korbata falta. Seguruenik batek baino gehiagok pasako zituen lepoko estutasunak. Aurpegi ezagun ugari agertzen den arren nor-bait faltako balitzaizu, jarraian guztien izenak jarri ditugu.

Atzeko iladan eta ezkerretik eskumara: Itziar Juaristi, Itziar Gabilondo, Maria Vitoria Anton, Begoña Iriondo, Mariasun Ubiria, Mariasun Lopez, Maria Jose Altuna, Begoña Bilbao eta zutik, Señorita Pili Laconcha.

Erdiko iladan: Maria Luisa Zubiaurre, America



Sanz, Gloria Zuloaga, Maria Pilar Etxeberria, Maria Isabel Unanue, Miren Juaristi, Maria Jesus Arrese, eta Teresita Uriarte.

Aurrekaldean: Maria Mercedes Garzia, Piedad Gutierrez, Amaia Mugika, Charo Etxeberria eta Cari Ansola.

LEIHOETAKO ZIRRIKITUETATIK:

- HOTZA
- HAIZEA
- HAUTSA
- ZARATA
- POLENA



Altzairu inoxidablezko burleteak betirako dituzue.

- Edozein leihotarako
- Instalazio azkarra
- 4-6 gradu gehiago, etxe barruan.

OBRARIK GABE

SARTZEN BAZAIZU...

glas control

Ubitarte 7. ELGOIBAR

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE



74 30 94 - 74 43 54

Mendaroko ospitalea: Osasuna gertuago

Betidanik jakina izan da Osasun Publikoari egotzi zaion zerbitzu edo asistentzia eza. Mendaroko Ospitalea eraiki baino lehen, elgoibartarrok eta Deba Beheko eskualdeko guztiok orokorrean, hiriburuetara jo behar izaten genuen eztarriko ebaketa sinple bat egitera, horrek dakarren gastu eta denbora galtzearekin. Mendaroko Ospitala martxan dagoenetik, etxetik bost minututara daukagu osasun zentrua.

1982. urtean Deba beheko eskualdeko Ospitalea eraikitzeko erabakia hartu zen. Ordurarte zerbitzu espezializatu guztiak Donostiako Arantzazuko Amaren Ospitalean burutzen ziren. Mendaroko Ospitala eraiki zenetik, Deba Beheko biztanlegoak osasun zerbitzu ezberdinak eskuratu dituzte.



↳ 1992.urte bukaeratik martxan daude zerbitzu guztiak.

Mendaroko Ospitaleak, kanpo kontsultetan, 18 espezialitate edo berezitasun eskeintzen ditu. Hori baino lehenago Eibarko anbulategiak zuen bere gain espezialitateen ardura, eta sei espezialitate baino ez zituen eskeintzen. 1992. urte bukaerarako Mendaroko Ospitalearen zerbitzu guztiak jarri ziren martxan. Egun, Deba Beheko eskualdearen beharrak betetzeko, 70 inguru mediku espezialista daude lanean. Espezialitate klinikoe-

tan, kardiologoak, alergologoak, neurologoak... eta espezialitate kirurgikoetan, traumatologoak, urologoak...

Momentuz, Mendaroko Ospitaleak ez du aipatutako 18 espezialitate horiek gehitzeko asmorik, duela gutxi sei-zortzi espezialitate jarri dira martxan eta.

Edozein gaisotasun osatzeko, ebaketa beharra balego, Mendaron bertan egingo litzateke. Eskualde Ospitale honek ezin du ebaketa edo operaziorik

Gaisotasun arruntenak, bihotzekoa, arnasketa aparatuko arazoak eta alkoholak eragindako gibleko gaitzak dira.

usoa
KAFETEGIA

Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

GRANDALÓ
OIHALA
eta
MERZERIA
Errosario 8. Tel:74 35 95

foto | azkue
ANIVERSARIO 20
1973 - 1993
URTEURRENA
San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

burutu bi kasutan: bihotze-ko gaitzetan eta lan istripu edo trafiko istripu batek eragindako buruhezurreko hausturetan. Miokardio infartu baten kasuan, gaisoa Mendarora eramaten da, bertan diagnosis egin eta oinarrizko tratamendua jartzeko. Segidan Donostiako Zainketa Bereziatarako Unitatera eramaten da gaisoa. Mendaroko Ospitaleak ez du Zainketa Bereziatarako Unitaterik, gaiso kopurua eta teknologia inbertsioak kontutan izanda, errentagarriagoa baita Donostiak zerbitzu hori betetzea. Izan ere, larrialdietara jo duten 1000 pertsonatik 60 soilik bidali behar izan dituzte Donostiara.

Mendaroko Ospitalearen helburua biztanlego osoari gaisotasunen %95ari dagokion asistentzia ematea da. Izan ere, gaisotasun hauek dira arruntenak eta bizi-kalitatea gehien murritzten dutenak. Gainera azkenaldian Ospitalean egon beharreko denbora laburtu nahian dabilta. Honela, eguneko kirurgia-deitzen dena jarri nahi dute martxan, gaisoa goizez ingresatu eta operatu ondoren, egunean zehar behatu eta gauean etxera bidali

Ospitalea paziente baten ikuspuntutik:

Baina jendeak Ospitalari buruz duen iritzia jakin nahi izan dugu eta horretarako plantan dagoen pertsona bati galdegin diogu. Ana Zabaleta elgoibartarra, haurra izatera Mendaroko Ospitalera etorri da. Hilak 20an goizeko 8ak inguruan haurra izan zuen eta oso kontentu dago jaiotzagatik noski,

eta maternoko mediku zein erizainengandik jaso duen tratuagatik. Profesional zein maila pertsonalean bertako langileak ezin hobeto portatu dira. Ospitala oso

ondo dagoela iruditu zaio, ez dabil jende asko eta bertan egon den denboran bakarrik egon da gelan. Seguritate sozialari ezin diola gehigo eskatu diosku, "hemendik aurrerakoa lujua baita".

Gure aldetik Zorionak! Anari.



➔ Ana Zabaleta oso kontentu dago jaso duen tratuagatik.

ahal izateko. Ebaketa edo operazioen egoera, ordea, bestelakoa da. 150 pertsona, ebaketa zain daude. Gehienak traumatologia eta urologia sailekoak dira. Halere, urologia eta traumatologia saileko mediku kopurua bikoiztu egin dute, eta laster zain daudenak operatzerik izango dute.

Ospitaleari buruzko zenbait datu:

| | |
|------------------------------------|---------|
| Langileak | 291 |
| Langileen batazbesteko adina | 30 urte |
| Ohe Kopurua..... | 102 |
| Maternokoak | 24 |
| Bestelakoak | 78 |
| Ohe okupazioa | %55-65 |

XABIER
ILEAPAINDEGIA
Eskatu eguna eta ordua
San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

DEKORAZIOA
Aue
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GALAK
Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

PUB
LAJANTEI
elgoibar

Ez erretzaile eta erretzaileen eskubideak:

Amerikan, espainolak han zehar agertu baino lehenago, bertako biztanleek erretzeari zentzu erlijiosoa ematen zioten, jainkoei eskeinutako opari bat; keak, beraien eta jainkoen arteko erlazio bat adierazten zuen. Ondoren, tabakoa Europara ekarri zuten eta bere erabilera gero eta gehiago popularizatu zen. Baina jadanik, Amerikako herritarren zentzu erlijioso hori ez zen ematen hemen.



Gaur egun, zigarroa beste balditzapen sozial bat da, gizarte kontsumitzailearen artikulu bat gehiago, publizitatearen beste produktu bat. Erretzailearen irudia birfinketa balio entretenigarri batzuekin erlazionatzen da; telebistan agertzen diren pertsona "inportante" gehienek erretzen dute (politikoeak, aktoreak, filmeetako heroiek,...); badirudi, ligatzeko ere arrakasta ematen duela.

Gizartearen hari gidaria telebista denez eta ordu asko sartzen direnez bere aurrean, gazteak ere (proiektzio psikologiko fenomeno bategatik) erretzen hasten dira, filmeetan ikusten dituzten pertsonaiekin bat egiteko. Honela, gero eta gehiago erretzen da, eta gainera, gero eta gazteago hasten dira.

Erretzaileek zera esaten dute: "nire birrikak neuriak dira", baina badirudi ez direla konturatzen (edo ez dute nahi?), erretzerakoan ez dituztela bakarrik beraien birrikak astintzen, baita beraien albokoenak ere, zeren eta gela batean baten batek erretzen badu, "denek erretzen dute". Eta hau da arazoa, ez erretzaileok ere, erretzaile "pasibokak" bihurtzen garela, besteon kea amastean.

Eta zerbait planteatzen denean, erretzaileen erantzuna beti berdina da: pres-

ta dezatela toki bat guretzat, bitartean...

Zer egin daiteke honen aurrean?. Badirudi azkenengo urteotan Administrazioa hasi dela arduratzen eta zerbait egiten, tabakoaren publizitatea murrizten, erretzea debekatuz toki batzuetan, e.a. Baina oraindik ez da nahikoa. Duela gutxi Frantzia hartu dituzten neurriak, askorentzat, gogorregiak, traumatikoak, eta ez dakit zenbat gauza diren. Kontzientiazio kanpainak egin behar direla (eta bai, egin behar dira), baina erre- alitateak adierazten duenez, orain arte lortu duen aurrerapenak, debekuen bidez lortu dira. Noski, erretzea ezin da debekatu, bakoitza oso librea da bere gorputzarekin nahi duena egiteko; baina gutxienez, lokal publiko itxietan erretzea debekatuta egon behar litzateke, edo bestela, tokiak prestatu erretzaileentzat.

Bukatzeo, arazo honi merezi duen garrantzia ez diogula ematen pentsatzen dut. Kea eta tabakoaren usaina ezatseginak badira, gainera, azkenengo ikerketek diotenez, erretzaile pasiboan artean ere, biriketako minbizi kasu asko ematen ari dira. Errespetu gehiago egon behar litzatekeela ez-erretzaileekin pentsatzen dut. Hala bedi.

Jose Inazio Izagirre



Ez dut nahi, inolaz ere, tabakoaren aldeko manifesturik hemen egin. Nik adinako ohitura duen edozein erretzailek ere ezingo du plazeretzat hartu erretzeko ohitura.

zan ere, nolako plazerea da goizero esnatzean aho-gustu nazkagarri agurtzen gaituena, minutuoro gu eta gure ondokoak egurats itogarriz erasotzen dituen eta gauero, erropetatik hasi eta ile sustraietaraino, usain berezi horretaz kutsatzen gaituen hori? Eta ez ditut bihotzekoaren eta beste hainbat gaixotasunen arriskuak aipatu.

Berdinak dira erretzaile eta ez-erretzaileen eskubideak. Baina batzuek erre egiten dugu eta besteek, ez; hor zegon, bada, kokka! Honek oso zaila, ezinezkoa akaso, egiten du bi taldeok elkarri kalterik egin gabe elkarrekin bizitzea. Erretzen ez dutenek guri kalterik egiten ez diguten bitartean, gure kalte egiten diegu. Horra hor desberdintasuna. Badirudi, gauzak horrela ikusita, elkarren aurkako borrokak ez duela irtenbiderik. Ez da, baina, horrela; denok gaude, erretzaile eta ez-erretzaile, tabakoaren aurkako unti berean sartuta.

Erretzaile orok sentitzen du noizbait erretzeari uzteko nahia edo beharra. Hau da, hain zuzen, gure eskubide nagusia: erretzeari uztekoa.

Erretzaile estandarren argudiorik txarrena honako hau da: "nahi dudalako erretzen dut eta, gainera, nola edo hala hil beharra dago". Zenbait erretzailek "biktima" gisa ikusten du bere burua eta ezinezko ikusten du tabakoa uztea.

Ez-erretzaile estandarren argudiorik txarrena, erretzai-

leak asesinotzat jotzea da, aukera duten guztietan. Badira ingurukoek ez erretzea eskertzen dutenak ere, baina ezer esan gabe. Hauek ditut begikoen.

Erretzaile gisa, nire eskubide nagusia erretzeari uztea dela mantentzen dut eta eskertuko nizuke hori lortzen lagunduko bazenidate zigarro kopurua murriztaraziz, tabakorik ez eskainiz, leku itxiak ke-kaiolak direla gogoraraziz. Baina ez nazatela irain, ez diezadatela emakume arrakastatsuen irudia zigarroarekin batera eskaini, irrifar egin diezadatela zigarro piztu berria itzaltzen dudanean, ez diezatela komentario mingaririk egin, uzteko ahaleginetan ikusten nautenean, gogora diezadatela uzten badut denok hobeto biziko garela, ez dezatela zaletasuna grina-rekin nahasi. Labur esateko, eskua luza diezadatela eta ez ukabilkada masailera, solidaritatea aipa eta ez zigorra.

Hau da azkenik, guztiei egiten dieran deia: erretzaileak soilik ez dira "biktimak" eta ezta ez-erretzaileak "heroiak" ere. Indibidualkeriak pozoindutako gizarte honetan, gure arazoak eta hauen konponbidea guztiok aurkitu beharrekoak direla oroitzeko motibo polita dugu hau. Izan ere, gehinetan, denok gara arazo horien biktima eta borrero. Ez dago arazo honekin zerikusirik ez duela esan dezakeen erretzailearik, ezta ez-erretzailearik ere.

Isabel Rivas
(Erredakzioan itzulia)

Erretzaile eta ez erretzaileen eskubideak:



Mila Anton,
34 urte, merkataria

Ez-erretzaileek beraien aurrean ez erretzeko eskubidea dute. Nik, erretzen ez badut ez nago ondo, baina erre aurretik galdetu egiten dut erre daitekeen ala ez.



Juan Luis Sarriugarte
39 urte, elektrizista

Erretzea txarra da, baina neure gustokoa delako erretzen dot. Ez-erretzaile baten aurrean normalean galdetu egiten dotsat, baina mesedez eskatzen badidate, ez dot erretzen.



Jose Manuel Castelo
46 urte, ebanista

Erretzaile eta ez-erretzaileentzako lekuak jartzearekin ados nago, baina taberna batean erretzea debekatuko balute, seguruenik ez nintzateke gehiago sartuko.



Florencio Albiz,
62 urte, pentsionista

Besteak molestatzen ez badituzu, nik uste erre daitekeela. Hori bai, errespetu handia izan behar da bestearekiko.



Lorea Izagirre
23 urte, dentista

Ez-erretzaileok ez erretzeko eskatzeko eskubide osoa dugu toki batzuetan. Horretarako, leku publikoetan debekatuta egon beharko litzateke erretzea.



Miriam Mujika
19 urte, ikaslea

Ez-erretzaileen eskubideak onartu egin behar dira, erretzerakoan kalte egiten zaielako. Baina erretzaileek ere erretzeko eskubidea dute.



KENSINGTON

⇒ **INGELESZ gain, orain, FRANTSESA.**

Langabentuentzat ikastaro bereziak IA DOHAINIK.

EZ ITXOIN ETA DEITU



74 02 36

Pedro Muguruza etorbidea 8 Tel, Fax: 74 02 36



GIPUZKOAKO HIZKUNTZA IRASKUNTZA
ELKARTEKO KIDEA.



24 orduz
zuekin

Arrate ☎ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

Amodiozko Gutunen Lehiaketa

Begarako Jardun elkarteak, amodiozko Gutunen I.Berrigara Lehiaketa antolatu du.

Lehiaketan 1978an baino lehenago jaiotakoek har dezakete parte eta lanak, euskara hutsez, San Valentin egunerako (otsailak 14) aurkeztu beharko dira. Gutunek bi orrialdetako luzera izango dute, gehienekoz. Lehendabizikoak, 75.000 pezeta jasoko ditu eta bigarrenak 40.000 pezeta.

Lanak lema soilik izan beharko du, egilearen datuak sobre itxi batean jarri behar direlarik. Guztia sobre handiago batean sartu eta honako helbide honetara bidali: "Amodiozko Gutunen I.Berrigara Lehiaketa. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara".

75.000 pezeta, jabearen zain

Txankakua Elkarteak adierazi digunez, 25.000 pezetako hiru sari banatu gabe dauzkate oraindik.

Zenbakiak honako hauek dira:

- 1.501
- 11.384
- 70.496



Ikastolako haur guztiak jai giroan

Urtero bezala Ikastolako haurrek euskararen jaialdia ospatu zuten hilaren 22an: Maila bakoitzeko haurrek, txikienetatik hasita, ikuskizun ezberdinak prestatu zituzten. Musika, dantza eta antzerkia izan ziren jaialdiaren ardatz.

San Sebastian eguna astean zehar ospatu zela eta, 5.mailako ikasleek tanborrada hotsez bete zuten kiroldegiko frontoia. Aurtengoan Ikastolak ospatu duen jaialdi honek Udalaren eta Kiroldegia- ren laguntza izan du.



"Kataolatza" eta Juliri omenaldia

Azpeitiko Ezkerretegi erretegiak datorren larunbatean arratsaldeko 8,30etan omenaldi bat egingo die Jose Kruzategi eta Juli Zubizarreta elgoibartarrei. Kataolatza eta Julik, soinua eta pandero hotsez hainbat herriko plaza alaitzen duten lanari errekonozimendua da.

CAFE
PZIFF
TEATRO
Pub PELOUSE
San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

7
4
4
4
4
4

Autoedizioa

D. Grafikoa

TINDATEGIA

ARKUPE

Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

Zazpiki Irratiaren 8.urtemuga bertsotan ospatu zuten

Hilaren 22an, ostirala, Zazpiki Irratiaren 8 urtemuga ospatzeko asmotan, Kimetz elkartean bertso afari bat egin zen.

70 bat pertsona bildu zen bertan Egaña, Mendizabal, Meabebasterretxea eta Irazu bertsolarien inguruan.

Hasieran, Irratia dela eta kantatu

zituzten bertsoek ederki berotu zuten giroa. Ondoren, Bertso Eskolako partaideak jarritako hainbat gairen inguruan bertso sail luze bat entzuteko parada izan zen.

Azkenik, trikitrilarien laguntzaz koplatako saio batekin bukatu zen afaria eta afari ostekoa.



Errepide mozketak

Azkaratetik Azkoitira bidea moztuta dago urtarilaren 25etik, eta horrela jarraituko du otsailaren 8a arte. Mozketaren arrazoia Azkioiti eta Elgoibar arteko errepide berria da. Momentuz, posible da Madarixara joatea.



Familia Heziketa

Pasa den ostegunean gurasoei zuzendutako ikastaroak hasi ziren Kultur Etxean. Juana Maria Maganto eta Isabel Bartau, Euskal Herriko Unibertsitateko psikopedagoek, guraso eta semealaben arteko komunikazioa hobetu nahian, familia heziketan formatu nahi dituzte gurasoak. Gaztaro nortasun aldaketek familian sortaraz ditzaketen arazoak dira ikastaro hauetako aztergai. Dagoeneko, 25 pertsonako taldea osatu da eta ikastaro hauek Udalaren dirulaguntzari esker burutu izan ahal dira.

Ingurugiro ikastaroak

Heziketa Fondoak antolatuta eta Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro sailordeak subentzionatuta, Elgoibarko Kultur Etxean ingurugiro ikastaroak martxan daude pasa den abendutik. Litzentziatuei zuzendutako ikastaroak dira hauek eta dohainekoak gainera. Klaseak eguneroko ematen dira, bost orduz, eta ingurugiroarekin lotutako hainbat gai jorratzen dira: ibai eta airearen kutsadura...

PUBLIZITATEA

 **742384**

TELEFAX PUBLIKOA
FOTOKOPIAK
ESKOLARAKO MATERIALEA

**PAPELERIA
GOXDEN**

Pablo Irureta
San Frantzisko 52. Tel:74 02 40

**NORBERTO
ZABALA**

PINTURAK

Errosario 32. Tel: 74 08 45.
ELGOIBAR

"Pastelak maitasunarekin egin behar dira".

Murua pastelerian lan egiten du, 18 urte zituenetik. Bere lana gustokoa duela dio. Beste hainbat elgoibartarrek bezala!

Bertako sukaldearen epeltasunean berriketan arituginen kremazko pastel eta San Blasen artean.

-Noiz eta nola hasi zinen gozogintzan? Eta zergatik?

18 urterekin hasi nintzan. Kolejixotik etorri nintzan eta bi urte neuzkan soldaduzkara joateko. Orduan gabaz estudixatzen hasi nintzan, eta goizez, probisional bezala, hemen lanian, soldaduzka bukatu arte. Hasieran lan hau aurkitu nabalako hasi nintzan, bi urte egin eta gero ikusten naban polita zala lana. Gero estudixatziaz ere nekatu nintzan, eta orduan segi egin naban lanean.

-Zer egiten dozue egunian?

Hemen sei lagun gera, eta normalian bakoitzak bere lanak ditu. Bata hasten darian kremiak, beste hasten da beste pastel bat jartzen. Dana banatuta daukagu. Gero baten batek amaitzen badu besteari laguntzen dio.

-Zuen espezialitatea edo berezitasuna zein da?

Guk artesia egiten dugu. Orduan espezialidadea, ba hori... Betiko lana dala, eta zaintzen ditugu betiko errezetak.

-Badaude gozo batzuk garai berezi batean bakarrik egiten direnak, ezta? Esate baterako San Blasak.

Orain bai... San Blasak. Aste Santuan Paskuako



"Pastel bat edo bi jateak ez du kalterik egiten"

arraultzak. Gero, San Balentin egunean Trufazko Bihotzak eukitzen ditugu. Domu Santu egunean "Huesituak", mazapanakin egindakoak. Gero Gabonetakoak: turroiak, erregetako "roskoiak" ere asko, gero eta gehiago... Beti izaten da zezer.

-Zein garaitan izaten dozue lanik gehien?

Gehien Gabonetan izango da segurasko. gero maiatzean komuniuen sasoiak, eta San Bartolome jaietan.

-Zure ustez zein da elgoibartarrei gehien gustatzen jakuen gozokia?

Orain denbora gutxi

arte, bariazio gutxi eukitzen zebe pastelak eta tartak. Orain hasi gara gehiagobariatzen... Hojaldrezko tartak gustokoak dira Elgoibarren, kremazko pastelak ere bai. Baina ez dago gustu definitu bat, bariazio asko dago. Betikoak izan direnak dira "relan-pagoak" eta "txutxuak".

-Gaur egun mehetzeko dagoen moda horrek izan du eraginik zuen lanean?

Ez. Guk ez dugu igartzen. Pastelak bardin saltzen dira. Guk beti esaten dugu hemen denak oso gozozaleak garela, eta lodirik ez dago hemen.

-Orduan, zuk zer esango zenioke ez lodiatzearen pastelak jaten ez daban jendeari?

Pastelak bakarrik ez dabala loditzen. Klaro, pastelak jaten dabazanak denetarik jaten du. Eta hortik datoz arazoak. Baina, pastel bat edo bi jateak ez du kalterik egiten. Garbi dago hori... Gero gimnasia piskat egin behar da, eta zaindu.

-Pastel onak egiteko zein da sekretua?

Sekretua? Bai, gogo ipini egiteko. Pastelak maitasunarekin egin beharra dira. Desberdina izaten da gauza bat gustora egiten duzunean edo ia nekatuta zaudenean, eta orduan gusto desberdina eta dena dauka pastelak.

-Zu zeu gozozalea al zara?

Asko... Bai.

-Zuk egiten dozuzen pastelen artean zeuri zein gustatzen jatu gehien?

Gehixena, gehixena... Ba ez dakit. Segun zer ordu den, pastel klase ezberdin bat. Goizean "kruasana" edo bonba bat, halako gauza bat. Bazkalostean, asko jan baduzu, gozoenak pastel txikiak dira. Baina, bai, segun zer ordutan izaten da pastel bat edo bestea gustaztea.

Agur Miren Barandiaran

Frantzisko Jabier Lazkano

Pesa autobusetako gidaria



- Zenbat urte daramazu gidari beza-la? -Hamaika urte.
- Autobusarekin egiten duzun ibilibidea? -Mendarotik Durango bitartekoa.
- Autopista ala errepidea? -Autopista hobeagoa da.
- Familiarekin kanpora bazoaz, nork gidatzen du kotxea? -Nik neuk.
- Multarik jarri al dizute sekula? -Sekula bai.
- Zure bizitzako oroitzapen onena? -Alabaren jaiotza.
- San Kristobal edo beste santu baten estanpitarik ba al daramazu? -Kotxean bai.
- Eguzkia ala ilargia? -Eguzkia.
- Jende askok erabiltzen al du autobusa? -Bai, gehienak estudianteak dira.
- Hobby bat? -Irakurtzea.
- Bidaia luzeak ala motzak? -Motzak.
- Amets bat? -Loterixia urtetzea.
- Autobusa bidean geratuz gero, ez aurrera ez atzera, zer? -Mekanikoei deituko nieke.
- Anekdotak bitxi bat? -Ez zait neri gertatu baina bai lagun bati. Ermuatik zetorrela, semaforo batean frenatu zaban eta bertan zegoen andra bat, autobuseko eskilaratan jausi eta buruz behera geratu zen.
- Bidaia bat egitekotan, nora gustatuko litzaizuke joatea? -Kari-be aldera.
- Moderno ala klasikoa zara? -Moderno naiz.
- Gogoko duzun musika mota? -Pop-a.
- Telebista ala irratia? -Telebista nahiago dut.
- Zertan ematen duzu zure denbora libre? -Irakurtzen, umeak zaintzen eta beraiekin jolasten.
- Aktore bat? -Kevin Costner.
- Gustora jaten duzun janaria? -Arkumea.
- Ura ala ardoa? -Ura.

Isabel Ansola

BERTSOTAN

URTARRILEKO ALDAPA

Doinua: "Aita izena"

Batean ondo hasi zen arren badator hogeitamaika San Anton jaiak ondoren krossa denak atzean lagata pausorik pauso aurreratuz piskanaka piskanaka urtero lehen pausoak eman ditugunez tipi-tapa zaila da baina gaintzen goaz urtarrileko aldapa.

Askok zioten *Noventaidosa* a zer nolako aukera ! aurten erabat aldatu zaigu Europako egoera krisia dala eta ez dala kezkatu aurkitzen gera Hortan pentsatuz une honetan galdetu nahi nuke zera: Urtarrilean zati bat baina Zenbat dago gailurrera?

Irati Agirreazaldegia



Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

**ZALDUA
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

Krosaren inguruko zenbait zertzelada

- ✓ korrikalari kopurua: 179.
- ✓ Ikusle kopurua: 4.000 - 5.000 artean.
- ✓ Aurrekontu osoa: 12-13 milioi
- ✓ Takilan ateratakoa: 1,5 milioi.
- ✓ Antolakuntza: 125 pertsona aritu ziren.
- ✓ Sariak: 18 trofeo banatu ziren.
- ✓ Taberna: Club Deportiboko tabernak 500 otarteko baino gehiago saldu zituen.
- ✓ Doping: 7 azterketa egin ziren.
- ✓ Istripuak: Telebista kamara batek, lurrera jausi eta burua zabaldu zuen

Gipuzkoako xake txapelketako emaitzak:

Lehen maila: Elgoibar 1- Eibar 3
 Bigarren maila: Atsedena
 Hirugarren maila:
 San Andres(Arrasate)4-Elgoibar 0.

Atletismoan brontzeko bi domina Elgoibarrera

Pasa den astebukaeran Agurtzane Arriolak Euskadiko Txapelketan hirugarren postua lortu zuen 400 metrotako lasterketan, 58"94 ehuneneko denboraz. Carmen Perea ere hirugarren gelditu zen 800 metrotako Euskadiko Txapelketan, 2'19"tako denbora egin ondoren. Lortutako denbora hauek, bi elgobartarrek lortu dituzten marka pertsonal onenak dira.



Alberto Revuelta.

Mugerza Memorialeko Podiumera igo den lehen elgoibartarra

-Hirugarren egin duzu Krosean. Pozik? -Bai pozik nago baina hobeto egin nezakeela uste dut. Bigarren egin zuenaren aurretik gelditzen naiz beste lasterketan. Krosean hauen lehen-dabiziko aldia da hau. Ondo dabilelako da hori. Ni ere bai, baina bueno...

-Nola izan zen lasterketa?
 -Oso urduri jarri nintzen hamar bat gindoazela ikustean eta lehen tiraldia eman ondoren bost gelditu ginen. Beste tiraldi bat eta hiru gelditu ginen. Baina hemendik aurrera ezin izan nuen beste biengandik aldendu. Azken kilometroan beraiek tiratu zuten eta azken 500 metrotan bigarrenak bi segundu atera zizkidan.

- Zer entrenamendu egiten duzu? -Egunero entrenatzen dut, eta astean 100 kilometro egiten ditut. Korrika bakarrik egiten dut, ezin dut bestelako kirolik egin, txarra baita korrikalariarentzat.

-Eta ikasketak? -Gaizki. Ez dut ikasteko gogorik izaten entrenatzen hainbeste orduz jardun ondoren. Orain arte kurtso guztiak atera ditut. Orain Armeria eskolan nago elektronika 5. mailan eta injeniaritza egin nahiko



nuke.
-5.000 metrotan Espainiako laugarren eta Euskadiko Kros txapelketan bigarren egin zenuen pasa den urtean. Aurretik? -Igandean Lasarteko Krosean arituko naiz baina nire helburua Mundialean sartzea da. Horretarako Espainiako txapelketan postu ona egin behar dut. Donostian egingo den Europako Txapelketan ere nahiko nuke sartu.
-Eta etorkizuna nola ikusten duzu? -Zaila. Datorren urtean senior mailan korritu behar dut eta noski, hori oso gogorra izango da. Junior kategorian ondo ibili arren, seniorretako lehen urtetan normala da postu onik ez ateratea. Bi edo hiru urte pasa arte, ezinezkoa izango da lehen postuetan daudenei aurre egitea.

Ez hotzik ez zaratarik
LODOSO LEIHOAK
 Deitu ☎ 74 34 90
 Tailerra: Ermuaranbide 16

UDA BERRI
ELGOIBAR

INTXAURRAGA
 zerbitzu aukeratua
 ...SECUC...
 San Roke 11, Tel. 74 18 37



URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



Argazkiko mutilak *Pedrusko* taldekoak ditugu. Iaz txapelketaren irabazleak izan ziren, finalean, *Ametsa* gainditu eta gero. Aurten ere, zortzi ihardunaldi jokatu direnean, lehen tokian ditugu partidu bat bera ere galdu edo berdindu gabe. Egia da "A" taldean ere *Urasandi* egoera berdintsuan dagoela, hauek, partidu bat gutxiago jokatu badute ere. Kontutan izan behar da *Pedrusko* azken garaipena lortzeko faboritoen artean dagoela, bigarren talde golegile onena eta gol gutxien jaso duen taldeetariko bat baita.

SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA - SAILKAPENA

| A Taldea | PARTIDUAK | | | | Puntuak |
|------------------|-----------|-------|-------|------|---------|
| | Jokt. | Irab. | Berd. | Gal. | Guzt. |
| 1. URASANDI | 7 | 7 | 0 | 0 | 14 |
| 2. A.R. EGAÑA | 7 | 5 | 2 | 0 | 12 |
| 3. KOSAKOS | 7 | 5 | 2 | 0 | 12 |
| 4. TXIRRISTAKA | 8 | 6 | 0 | 2 | 10 |
| 5. RUA | 7 | 5 | 0 | 2 | 10 |
| 6. ARROAK | 7 | 3 | 2 | 2 | 8 |
| 7. KARKIS | 7 | 2 | 4 | 1 | 8 |
| 8. BAR CASERIO | 7 | 3 | 2 | 3 | 8 |
| 9. LA PERLA | 8 | 3 | 0 | 5 | 6 |
| 10. GORRIBELTZ | 8 | 3 | 0 | 5 | 6 |
| 11. KING-KONG | 8 | 1 | 3 | 4 | 5 |
| 12. XIRULA | 8 | 2 | 0 | 6 | 4 |
| 13. BAR AMISTAD | 8 | 1 | 1 | 6 | 3 |
| 14. TXINTXIMINAK | 8 | 1 | 1 | 6 | 3 |
| 15. M.TENA | 8 | 0 | 0 | 8 | 0 |

| B Taldea | PARTIDUAK | | | | Puntuak |
|-------------------|-----------|-------|-------|------|---------|
| | Jokt. | Irab. | Berd. | Gal. | Guzt. |
| 1. PEDRUSKO | 8 | 8 | 0 | 0 | 16 |
| 2. AMETSA | 8 | 6 | 1 | 1 | 13 |
| 3. GAR. GARCIA | 8 | 5 | 1 | 2 | 11 |
| 4. TXURI URDIN | 8 | 4 | 1 | 3 | 9 |
| 5. LAGUN TOKI | 8 | 4 | 0 | 4 | 8 |
| 6. MIMOX | 8 | 4 | 0 | 4 | 8 |
| 7. JOSERRA | 8 | 4 | 0 | 4 | 8 |
| 8. UNIV. DE CHILE | 8 | 3 | 2 | 3 | 8 |
| 9. M.R.W. | 8 | 2 | 4 | 2 | 8 |
| 10. A.R.E. | 8 | 3 | 1 | 4 | 7 |
| 11. LANBROA | 8 | 2 | 3 | 3 | 7 |
| 12. GAZTEAK | 8 | 1 | 2 | 5 | 4 |
| 13. BERROGEI DURO | 8 | 1 | 1 | 6 | 3 |
| 14. SPORTING | 8 | 1 | 0 | 7 | 2 |

TALDE GOLEGILEENA

- A.R. EGAÑA40 gol
- PEDRUSKO31 gol
- LAGUN TOKI.....31 gol

GOLEGILE ONENA

- Bermudez (A.R. EGAÑA)20 gol
- J. Romero (GARAJES GARCIA)14 gol



GOL GUTXIEN JASO DUEN TALDEA

- RUA7 gol
- PEDRUSKO.....7 gol
- KOSAKOS.....9 gol
- URASANDI.....9 gol
- AMETSA.....9 gol

Ego-toki: 30 urte krosa antolatzen

1958. urtean bi kuadrila, "Desastre" eta "Danok bat", elkartu eta soziedadea sortu zuten. Urtebete lehenago Baltasarrekoak hasi zirela eta, lehenago bazegoela Biar-Dana eta, beraiek ere soziedadea egin behar zutela pentsatu zuten. Lehenbiziko presidentea Alejandro Iriondo izan zen eta urteko 300 pezeta ordaintzen zuten.



AZKUE

↳ Etiopiarrek, exotiko bezain korrikalari onak dira.

Hasieran gastronomiara soilik dedikatzen ziren, baina izenez betidanik izan da "Sociedad Atletica Ego-Toki". 1963. urterarte, ordea, ez ziren Krosaz arduratzen hasi. Ordurarte Klub Deportibok antolatzen zuen Memoriala, baina zuzendaritza urtero aldatzen zuten eta fundamentu handirik ez zuten, Ego-Tokik hartu zuen lan hori bere gain. Eta horrela jarraitu dute gaur arte, 1981. urtean

ezik, elurtea zela eta, azken orduan bertan behe- ra utzi behar izan zuten Krosa. Etiopieak hainbeste elur ikusita, "aluzinauta" gelditu zirela komentatu digute. Krosa antolatzeko "atletismo batzorde" bat dago, hiru Ego-Tokikoak dira, bazkideak, eta beste hiru ohorezko bazkide. Elgoibarko korrikalari gazteen taldea ere badute.

Loritoa
Edozeini bururatuko

zitzea inoiz nondik atera den Ego-Tokiko balkoian egoten den loritoa. Gineatik ekarri zuten 1960. urte inguruan eta *Anbolo* (kaixo) izena du. Gutxienez 33 urte dauzka, sozioedadeak beste. Beraiek ere ziur ez dakite. Loritoa zaintzeko 5.000-6.000 pezeta jartzen dute urtero. Denetarik jaten omen du, patata eta urdaiazpiko zatiak ere bai. Beraiek diotenez "txanpana ere erango

leuke honek eman ezker". Berba ere egiten du, eta ez gaizki gainera. "Aupa el Elgoibar", eta norbait jaitzen denean "ya has pagao?" eta horrelakoak esaten ditu. Txistuka hasten denean balkoira atera behar izaten dute. Anbolo, elkar-teko maskota bihurtu da eta antolatzen dituzten ekintza guztietako logotipo bezala jartzen dute.

"OBISPO" TARTA

Osagaiak:

6 arraultza, 190 gr. almendra txikitua, 190 gr. glass azukrea, 15 gr. gehiago gaintetik botatzeko, 60 gr. almendra osoak, 3 koilara azukre, 95 gr. mantekila, labea 160°tara, dendorra: 40-45 minutu.

Nola egin:

Gorringoa eta zuringoak banatu. Zuringoak jaso "a punto de nieve". Zuringoak eta glass azukrea nahastu. Poliki-poliki, txikitutako almendra bota eta ondo nahastu. Tartera batean aluminiozko

papera mantekilaz igurtzi ondoren, bertara bota nahasketa. Gelditzen diren 3 gorringoak 3 koilara azukrekin nahastu. Mari-bainutan urtu. 95 mantekila gramok urtu eta gorringoekin nahastu. Horrekin tartaren barrena beteko dugu eta gaintetik apaindu. 35 minutu pasa ondoren, orratz batekin begiratu tarta bustia dagoen ala ez. Labetik atera ondoren, hozten utzi eta erditik luzetara zatitu. Erdian gorringo eta mantekila nahasketa jarri. Almendra osoa eta glass azukrearekin apaindu.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea:

1958.eko uztailak 1

Presidentea:

Txomin Iribarren

Bazkide kopurua: 70

Urteko Kuota:

6.500 pta.

Berezitasuna:

Atletismoa

Helbidea:

San Frantzisko 22.

Herriko Antzokian berritze lanak

Herriko Antzokia berritzeko lanak, Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso bezain pronto hasiko dira. Lanen iraupena 3 edo 4 hilabetekoa izango da eta guztia burutzeko 60 bat milioi behar izango dira.

Elgoibarren ez dago antzerkia, kontzertuak eta antzerako ekitaldiak egiteko leku aproposik. Horretarako edifizio bat eraikitzea garestiegi zela ikusi ondoren, Herriko Antzokia berritzeko proiektu bat plazaratu da. Lau dira hobetuko diren arloak:

Kaldera


Aretoa berotzeko, eskenatoki azpian, lurrazpian dagoen kaldera bat erabili izan da. Baina legez kanpokoa izateaz gain, sistema ez da batere modernoa, horregatik aire egokitu sistema jartzea erabaki da.

Insonorizazioa

Hauxe izan da gaueko sesioa ez egotearen arrazoia. Dezibelio maila altuegia zela eta auzokideak behin eta berriro kexatu izan dira. Aretoa insonorizatu ondoren, gauetan zinea jarriko da.

Eskenatokia

Eskenatokiak 5 metro t'erdiko sakonera izanda, antzerkia egiteko txikiegia da. Eskenatokia jarlekuak dauden aldera handituz gero, 100 bat jarleku galduko lirake. Horregatik eta soluziobidea konplexuago bada ere, eskenatokia pantaila alderuntz luzatuko da. Eskenato-



↳ Jarlekuen artean hankak luzatzeko espazio gehiago egongo da.

kiari 7 metro t'erdiko sakonera emango zaio honela, horixe baita antzerkia behar bezala egin ahal izateko gutxieneko espazioa.

400 jarleku

Foru Aldundiaren diru-laguntza jasotzeko Herriko Antzokiak 400 jarleku izan behar ditu gutxienez. Goiko solairuan, jarlekuen artean hankak jartzeko leku gehiago utziko da. Horretarako palkoaren aurrekaldeko bi jarleku ilada kendu

eta horien hutsunea betetzeko, palkoaren albokaldeak pantailaraino luzatuko dira; beheko solairuan ere, jarleku berriak jartzeaz gain, beraien arteko lekua handituko da.

Proiektu honetan elbarrituak kontutan hartuko dira. Sarrera eta irteera berezi bat izango dute eta beraien beharretara egokitutako komunak ere ipiniko dira. 60 milioitako aurrekontu horretatik, erdia, Aldundiak emango omen du.

Zenbait datu:

| | |
|------------------------------|-----------------|
| Eskenatokiaren sakonera..... | 7,5 m. |
| Jarleku kopurua..... | 450 |
| Lanen iraupena..... | 3-4 hilabete |
| Aurrekontua..... | 60 milioi pzta. |

**ALDIZKARIA
JASO NAHI
BADUZU
DEITU
74 16 26**



Salvador Celaya

ITURGINTZA

**BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK**

Errosario 22. Tel: 74 04 94

IDO'S 

Edergintza

☎ 74 34 40
Eskubideen plaza 1 6

30 Larunbata

16,00 XAKEA

Elgoibar- San Andres (Arrasate)

Santa Klarako eskolaurrean.

16,15 FUTBOLA

Elgoibar- Tudelano

(2 B maila)

19,30 ZINEA

"Jamon Jamon"

3 Asteazkena

San Blas eguna

9,00-10,00-20,00 ELIZKIZUNAK

San Blas opilak bedeinkatuko dira.



17,00 HITZALDIA

Gaia: Masektomia

Hizlaria: Maria Jesus Mitxelena
doktorea. (Gipuzkoako
masektomizatutako
emakumeen elkartekoa).

Lekua: Zaharren Biltokia.

4 Osteguna

Santa Ageda eguna



AZKUE

5 Ostirala

19,00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Gaia: Galiziako erreportaiak

Egilea: Jose Andres Avila
elgoibartarra.

Lekua: Kultur Etxea.

31 Igandea

16,30 ZINEA

" F X 2 efectos mortales".

19,30 ZINEA

"Jamon jamon".

1 Astelehena

19,30 ZINEA

"Jamon jamon".

HARPIDETZA TXARTELA

elgoi**BARREN** herri astekaria, **DOHAINIK** , astero buzoian jaso nahi baduzu bete harpidedun txartela eta elgoi**BARREN**era bidali edo deitu telefonoz.

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:.....

TEL:.....

elgoi**BARREN** astekaria, Ubitarte 4 behea.(20.870) Elgoibar

TEL: 74 16 26

TXANDAK

FARMAZIAK:

30, larunbata: ORMAZABAL

31, igandea: ORMAZABAL

1, astelehena: ETXEBERRIA

2, asteartea: ETXEBERRIA

3, asteazkena: ETXEBERRIA

4, osteguna: ETXEBERRIA

5, ostirala: ETXEBERRIA

OKINDEGIAK:

24, igandea: BOUTIQUE DEL PAN



Etxebizitzak

Logelak alokatzen ditugu
Pedro Muguruza 19an.
Prezio oso merkeak.
Tel. 74 23 84

Lana

Tituludun irakasleak
O.H.O.ko klase partikula-
rrak ematen ditu.
Alazne Tel.:74 28 53

"Modulo 3 de Fabricación
Mecánica" ikasketak amai-
tuta lan bila nabil.
Jon Etxabe Tel.: 74 06 19

Aseguru aholkularitzak
KOMERTZIALAK behar
ditu.
San Bartolome, 15 behea.
(San Bartolome eta Erro-
sario arteko pasalekua)

Salerosketak

7 urte inguruko ume bat
Ihauteritan mozorrotzeko
KIMONO bat emango
nuke bi mila errialen truke.
74 07 85 tfnora deitu
gauz.

Organu HAMOND bat. 8
baxu, bi teklatu eta sekzio
ritmiko duna. 50.000 pzta.
Alberto: 74 14 94

Bizikleta bat saltzen dut.
Berri-berria. Haurrentzako
"Orbea" markako motoreta
gorria da. Prezioa nego-
ziazteko.
Jasone. Tel.: 74 25 36
Deitu 9etatik 10etara.

Nintendo Kontsola bat sal-
tzen dut. AUKERA!!
Tel: 74 23 27

Kontaktuak

Intsumisioari buruzko
informazioa nahi baduzue,
idatzi lasai helbide honeta-
ra:

**Elgoibarko Talde Anti-
militarista, 70 Postaku-
txa, 20.870 Elgoibar.**

Orrialde honetako iragarkiak doan dira.
Testua idatzi eta bidali elgoiBARREnera.

TESTUA.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel.: 74 16 26

elgoiBARREN astekariaren oharrak:

1. Elgoibarko Izarrako bazkide izan eta astekaria buzoian jasotzen ez baduzu, deitu mesedez **74 16 26** telefonora helbideak zuzen jartzeko.
2. Aste honetatik aurrera, harpidedun fitxa bete dutenei bakarrik bidaliko diegu astekaria. Beraz astekaria jaso nahi duzutenok harpidedun fitxa bete beharko duzue.

Mila esker!

Eman urteari hasiera on-bat



S E A T T O L E D O

Hasi urtea SEAT TOLEDO batekin.
Orain EIBAR MOTORek

250.000 PTA.

GEHIAGO EMATEN DIZU
ZURE KOTXE ZAHARRAGATIK
SEAT TOLEDO bat erosterakoan.

LEHENENGO URTEAN

19.900 PTA./HILEAN

ORDAINDUZ FINANTZIA DEZAKEZU.

M A R B E L L A - T E R R A - I B I Z A

Kotxe berriak, matrikulatuak eta estrenatu gabeak PREZIO IKUSGARRIETAN.

SEAT

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 . Tel. 11 36 42 Eibar